

«EL GOBIERNO DE UCD» ETA BESTE



TXILLARDEGI

Edozein lekutan, edozein hitzalditan, edozein aberzaleren ahotan, lelo berbera behin eta berriz: denek errua «el Gobierno de UCD» delako horrek omen dauka. Zer dago esaldi horretan? Tatikazko esakera hutsa bakarrik, ala pentsakera aldaketa bat?

Lehen, hogeitaz urtez, berrogeitaz urtez, hauxe esaten zitraigun: «Etsaia ez da Madrilleko gobernu; are gutxiago Españaikoa. Etsaia frankismoa da». Eta etsaia «el Gobierno de Franco» zelakoan, eta ez besterik, espainatar eskerrarekin elkartu egin behar zela-ta, PCE-rekin, are PSOE-rekin ere eta bereziki, ezkondu egin ginen; edo, kanboar kantariaren hitzez esateko: «ez-kontarazi gintuzten».

Eta politika itsu horrek ekarri dituen ondorioak ezagunak dira: ez PSOE-k eta ez PCE-k mogitu dute behatz txikerra bera ere gure nazio-eskubideen alde. Nafarroa-ko gertakarietan ezin nabarmenkiago agertu denez, PSOE-k eta UCD-ak bat egin dute gure kontra; Calvo Sotelo-k eta Francisco Franco-k eskatu zuket bezalaxe.

Etsaia, hitz batez, ez zen orduan «el Gobierno de Franco»; eta gaur gure eskubideen etsaia ez da «el Gobierno de UCD». Eta lehenago, gure etsaia ez zen izan «el Gobierno de Lerroux»n, edo «el Gobierno de Maura». Ez. Horretaraz gero, Madrilleko gobernuen ilara guztia eman beharko genuke-ta.

Gure etsaia, ez da «el Gobierno de UCD»; Madrilleko gobernuak baizik.

Eta ez Madrillekoa bakarrik. Bihar Aix-en-Provence-ko hauzian Apaolaza eta Goikoetxea-ren kontrako erabakiren bat hartuko balitz, hori ez litzateke izango «el Gobierno de UCD»-rengatik; ezta Barre-ren gobernuagatik ere. Paris-ko gobernuarengatik baizik.

Baina gure hizkera bitxiak kontuak ez dira horretan bukatzen.

Horra hor beste lelo bat: «la clave es el centralismo». Euskaldun zentralismoaz ari ote gara hitz egiten agian? Ez. Guk dakigularik, inork ez du euskal gobernu zentralizaturik proposatu. Gure arazoa ez da Bilbok edo Iruñeak jasan erazten dituzten «zentralismo».

Arazoa «zentralismoa» dela esanez, Españaiko estatua onartzen dugu, bere mugak eta guzti. Gauza bat bakarrik salatzen dugu: marko horretan «zentralismoa» dagoela! Hots, Barkoxe-ko eta Donibane-ko euskaldunek ez dute «zentralismo» hori jasaten; baina «ahantzi» egiten ditugu, eta gugandik kanpoan uzten. Hitz batez, inperialismoaren eskemak onartzen ditugu.

Baina, egia esan, Barkoxe-ko eta Donibane-ko baztuk, «centralisme» delakoa salatzen dute: «le centralisme nous étouffe». Eta han ere ez dute Baiona gogoan, ezta Iruñea ere. Hitz batez, ontzat ematen dute «Hexagone» famatua; eta frantses inperialismoaren markoa ontzat ematen beraz.

Arazoa «zentralismoa» baldin bada, ikurriña ez-baina Españaiko beste bandera bat ateratzen dutenek arrazoi dute: España hau ez, baina bestelako bat, «zentralismo»-rik gabea, pozik. Gauza bera beste Frantzia

bat, «centralisme»-rik gabea izanez gero.

Non dago euskal abertzaletasuna horrelako plan-gintzetan?

Oraindik ere bada besterik.

«La culpa de todo la tiene la derecha». Nongoa aurrenik? Donibane-koek han esa behar dute: «La faute est á la droite».

Baina zelebrea da egoera.

Nafarroan ikusi denez (eta Konstituzio-gintza guztian barrena etendurarik gabe ikusi denez, kontuz!) UCD eta PSOE (eta gainerakoak, jakina: karlista, maoista, trotskista, eta abar) BAT dira Euskal Herriari bere nazio-eskubideak ukatzeko mementoa etorria delarik.

Ene galdera hau da: PSOE, PCE eta gainerakoak, ezkerreko aldeerdiak dira, ala ez?

Ezkerrekoak ez badira, arrazakerian erortzen hasiak gara: espainatarra, kromosometan dituen geneengatik, eskuindarra da. Hots, nekez esan daiteke espainatarrak, denak, eskuindarrak direla. Beren erreformismoa eta guzti, PSOE, PCE, eta gainerakoak, ezkerreko aldeerdiak dira.

Hots, ezkerrekoak ezanik ere (eta gauza berbera Frantziako PCF, PSF, eta gainerakoak), Euskadi-ren NAZIO-ESKUBIDEEN KONTRA daude. Inperialismoa, hitz batez, ezkerrean eta eskuinaz nagusiatu dago. Beste mila lekutan bezala.

Bide beretik, PNV-ak daraman politika-bidea alde askotatik gure herriarentzat kaltegarria bada ere, PNV-aren oinarrian, eta laguntzen duen herri xehean, kontserbadore eta eskuindar izanagatik ere, jende asko dago, bihotzez (eta praktikaz ere bai, ematen zaizkion kontsignez bestaldera) Euskadiren NAZIO-ESKUBIDEEN ALDE. Eta euskal ezker abertzalea ere bai, noski.

«La culpa de todo, la tiene la derecha» esatea, beraz, egia ez den zerbait esatea da. Españatar abaniko OSOA dago euskal NAZIO-ESKUBIDEEN kontra, zenbait berexkuntza egirik bederen; baina Euskadi-ko abertzalen abaniko OSOA ere, bi muturretan abertzaletasuna saldua dutenak kenduta, euskal NAZIO-ESKUBIDE horien alde dago.

Hiru esaldi horiek, beraz: «la culpa la tiene el Gobierno de UCD», «la culpa la tiene el centralismo» eta «la culpa la tiene la derecha», abertzaleen ALIENAZIO-MAILA neurtzen dute zehazki. Hirurok baitira inperialismoarik ez dagoela onartuz gero, derriort onartu behar diren ondorioak; baina hirurok ere aldrebeskeria nabarmenak baitira inperialismoaren fenomeno funtsezkotzat duan edozein abertzalerentzat.

Orain oso modan dago «Semiología». Eta euskal ezker abertzalean ere zabaltzen ari diren hiru esaldi horiek, eta beste mila horrelako, zerbaiten «sema» dira, zerbaiten seinale. Eta ni oso bildur naiz, beste anitz bezala, hizkera-aldaketa horretan ez ote den besterik, eta sakonagorik, eta larriagorik ere, gertatzen ari.

Agian ez!